


Arrasate

P R E S S

1995eko
Urriak 11
292. zenb.




Iban Lizarralde




Jon Etxebarria



*Mikel Irizar
Joxe Aranzabal
Aintzane Gardoki*




Andoni Urzelai



*Anne Igartiburu
Jon Andueza*



Mainer Egües



Anuska Lasa

ATBtik mundura



Lutz Arregi



Udazken-negu modako nobedade guztiak TROKOn

*Bai, dagoeneko heldu da TROKOr
denboraldi bonetan eramango den guztia.
Zatoz eta ezagutu ezazu gazte eta
helduentzat eskaintzarik zabalena.*

Erdiko kale, 14 ARRASATE

Etxe-Aundi

Torreauzo, 9
Tfnok: 78 19 56 / 78 32 90
OÑATI



Zuen ezkontza gurekin ospatzen baduzue,
EZKONTZAKO CAVA GURE KONTU!!
Egin zure erreserba orain!!



Anna de Codorniu

Zer gertatu zen Txinan 1995.eko irailean?

Dakigunez Abuztuaren 31tik Irailaren 8ra Txinan Emakumeari buruzko IV.Nazioarteko Konferentzia ospatu zen.

Joaterik izan ez genuenok bi informazio mota desberdin jaso genituen: lehendabizikoa, Konferentzia izan bitartean jaso genuena, eta hau gizarte komunikabideek bidalitako informatzaileen eskutik. Eta bigarrena, bertan izaniko partaide eta lekukoek kontatu digutena, Konferentzia bukatu eta bueltan etorri direnean. Bestetan ez bezala, oraingo honetan, ezin esan kontraesanik egon denik lehendabizikoek eta bigarrenek emandako informazioen artean; gehiago oraindik, gauza desberdinez hitz egin digutela esan genezake. Konferentzia bitartean jasotako informazioak barruko debateetan eta taillerretan esandakoaz baino Konferentziaren inguruko gora-beheren ingurukoak izan ziren: eguraldi eskaxa egiten zuela, antolaketa aldetik ere bazegoela zer konpondu, eta gehienbat, txinatar poliziek eta kazetarien arteko tira-birak bihurtu zirela protagonista.

Egia esan, hemendik oso giro etena zegoela ikusten genuen Txinatar poliziarren bijilantzia zela-eta. Normala!, pentsatuko zuten batzuk, Asiako herri galdu horretan edozer gauza; gainera azken urteotan amek seme-alaba bakarria izatera behartuta daudenez nahiago dute mutila ...eta neska dela jakiten dutenean berau desagertarazteraino heltzen dira. Honelako burutazioak edo antzerakoak izan

duenak, ezustekoa hartu du han izandakoen bertsioa entzuterakoan. Hauen ustez, txinatarrek mantendu duten bijilantzia ez da horren zorrotza izan eta Konferentzia bera ere ez zuten oztopatu ere egin. Iritzi berekoak dira Txinan izandako Txaro Arteaga, Emakunderen arduraduna eta Pilar Perez Fuerte Euskal Herriko Unibertsitateko Historia irakaslea. Gainera, bi emakume hauek Foro desberdinetan hartu dute parte: lehendabizikoa talde gubernamentaletakoan taldean eta bigarrena ez gubernamentaletan, beraz ez batean ez bestean ez ziren horrelakorik izan. Orduan, zer dela eta gizarte komunikabideek fokalizatu zuten atentzioa polizia eta kazetarien arteko tira-biretan?

Pilar Fuerte Perezek eginiko deklarazioetan zera adierazi du: "Gertatzen da emakumeen gaiak ez duela interesik. Prentsaurreko bat izan zen eta bertan kazetari batzuek poliziekin izaniko gorabeheraz eman zen informazioa. Batean norbaitek egun hartan foroan aztertutako gaiez egin zuen galdera, eta mahaia informazioa ematen hasi bezain pronto, kazetariak, gizonezkoak gehienak, jeiki eta joan egin ziren, informazio honek ez baitzuen interesik".

Halere, Pilar Fuerteren ustez, gertakari historiko inportantea izan da aurtengoa, eta datozen urteetan Pekini buruz hitz egingo da, bertan bildu baitziren mundu guztiko 40.000 emakume beren eskubideaz, duintasunaz eta botereaz hitz egiteko.

MATILDE SAINZ OSINAGA



Alkoholarekin arazoak daukazu?

Agian, "Alkoholiko Anonimoek" lagundu ahal dizute!!

Alkoholiko Anonimoak

3. areako Informazio bulegoa
(Gipuzkoa)
Tfnoa: 61 93 38


Memesa
79 42 22



Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarría. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publizitatea:** Jaxone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube eta Itxaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantzazu Loidi, Mikel Irizar, Blanka Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Kamele Perez, Sorginak, Kopi, Danel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martínez, Ibar Astondo, Haritz Larinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rafa mungia, Mario Egües, Rufina Olasagasti. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaita. © ARRASATE PRESS. Tirada: 5.500. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Ohati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Goio Arana



BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit.79 53 00
 Iguatorialdea79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak)79 39 00
 (emakumeak)79 44 11
 Buru osasunerako zentrua79 90 11

Gurutze Gorria
 Bergara76 55 76

DYA
 Antzuola76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak)79 13 57
 • Txanda hartzeko: medikuntza
 orokorra eta pediatria77 03 45
 • Espezialitateak77 05 78
 77 12 63
 Oñati78 08 52
 Eskoriatza79 98 58
 Aretxabaleta79 74 58
 Aramaio(945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziazkiak45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati78 04 11
 Bergara76 14 69
 Arrasate79 14 39
 Aretxabaleta79 10 52
 Eskoriatza088

Ertzaintza
 Arrasate79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea088

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua)79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero)12 01 62
 Gasa900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak79 12 22
 P.E.S.A.79 14 19

Hirugarren adinekoendako zentruak
 Iturbide Egoitza79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza79 81 57

Kontsumitzailearendako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak79 87 77
 KIUB-OMIC79 51 55

Monterrongo liburutegia
 Monterron77 01 05

GUARDIAKO FARMAZIAK

Asteazkena 11
 Egunez eta gauzez : Mozas. Bergara.
 10ak arte: Amezua. Santamaina.

Osteguna 12
 Egunez eta gauzez : Camacho. Bergara.
 10ak arte: Ruiz. Maala.

Ostirala 13
 Egunez eta gauzez : Puy. Bergara.
 10ak arte: Azkoaga. Ferrerías.

Larunbata 14
 Egunez eta gauzez : Cuellar. Bergara.
 10ak arte: Español. Iturriotz.

Igardia 15
 Egunez eta gauzez : Cuellar. Bergara.
 10ak arte: Corcuera. Musakola.

Astelehena 16
 Egunez eta gauzez :Erguin.

Asteartea 17
 Egunez eta gauzez : Ameza. Santamaina.

Asteazkena 18
 Egunez eta gauzez : Ruiz. Maala.

12 OSTEGUNA

- **ZINEA**
 "La ciudad de los niños perdidos" 5etan, 7.30etan eta 10etan.
- **ZINE KLUBA**
 "Fresh" Amaia antzokian gaueko 9.30etan. Zuzendaria: Boaz Yakin. Sarrera: 350 pta. eta gazte txartelarekin 300 pta.
- **MENDI IRTEERA BESAIDE-REKIN**
 Pirinioetara (Espingoko harana, Perdigero) mendi irteera goizeko 7etan Garibaitik, itzulerara 15ean. Besaide Mendizale elkarteak antolatuta.
- **ELOSUKO MENDIGANADU FERIA**
 Euskal Herriko mendi ganadua onena Bergarako auzo honetan. Goizeko 10etatik aurrera feria, eguerdi aldera trikitilariak, bertsolariak, bazkaria...
- **UDALAITZ EGUNA**
 Irteera goizeko 9etan Udalatik.
- **3 HAUNDIXEK 3 EGUNETAN**
 Urriaren 12, 13 eta 14an 3 handiak 3 egunetan (Aitzgorri, Anboto eta Gorbea). AED-ko gazteak antolatuta. Iban Learreta eta Harkaitz Apeirren memoriaia.

ARGAZKI IKASTAROA ASAK ANTOLATUTA

**Hasierako maila: azaroaren 7tik abenduaren 14a arte, astearte eta ostegunero. ASA elkar-
 tearen lokalean, arratsaldeko 6.30etatik gaueko 8.30ak arte. Prezioa: 3.000 pta. (langabetuek eta ikasleek 1.500).**

13 OSTIRALA

- **ZINEA**
 "Guantanamo" 7etan eta 10etan.

14 LARUNBATA

- **ZINEA**
 "Guantanamo" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

NERABEAK ETA AISIALDIRAKO HEZITZAILEAK TAILERRA

"Nerabeak eta aisialdirako hezitzaileak" tailerra urriaren 27 eta 28an. Herriko gazte taldeetako begiraleei zuzenduta. Bertan beste nerabearen eboluzioa, heldu eta hezitzaileen arteko harremanak, komunikazioa, autoestima eta kasu praktikoak aztertuko dira. Prebentzio eta Gazteria Udal Zerbitzuek antolatuta.

PINTURA ERAKUSKETA HARRESIN

Urriaren 29ra arte Valentín Aranaren pintura erakusketa Harresi aretoan. Ordutegia: egunero betatik 8ak arte eta larunbat eta jaiegunetan eguerdiko 12etatik 2etara eta arratsaldeko betatik 8etara.

IV. JOSE RAMON ARANA MEMORIALA

Urriaren 22an, IV. Herri lasterketa Jose Ramon Arana memoriaia Aretxabaletan goizeko 11etan. Partehartzaileak: infantil, kadete, junior, senior eta beteteranoak. Lehengo hamarrek jasoko dute saria. Izenematea lasterketa hasi baino ordu bete lehenago lasterketaren gunean.



UDALAITZ EGUNA

Ostegunean irteera goizeko 9etan Udalatik. 11etan meza Udaltzen. Mezan hildako guztiak gogoratu dira baina bereziki bi lagun: On Jose M^o Mendizabal arrasatearra eta Udalaitez zalea eta Roberto de la Fuente, Peña Telan hil zen 26 urteko oñatiarra.

15 IGANDEA

- **ZINEA**
"Guantanamera" 5etan, 7.30etan eta 10etan.
- **NAFARROA OINEZ 95**
Nafarroa oinez Tuteran. AEDk autobusa antolatuta du. Irteera goizeko 8etan Zaldibar pilotalekutik.

16 ASTELEHENA

- **ZINEA**
"Guantanamera" 7etan eta 9.30etan.
- **EUSKAL HERRIA ASKATU KONTZENTRAZIOA**
Euskal Herria Askatu lemapean kontzentrazioa plazan arratsaldeko 8etan. Amnistiaren aldeko Batzordeak antolatuta.

17 ASTEARTEA

- **ZINEA**
"Guantanamera" 7etan eta 9.30etan
- **KANTU ETA PIANO ERREZITALDIA**
Kantuan Bettina Smith mezzosoprano noruegarra eta pianoa Ana Sanchez Donate pianujole donostiarra. Amaia antzokian gaueko 8etan.
- **MEDIKUNTZA NATURALARI BURUZKO HITZALDIA**
Medikuntza naturala eta sendabelarrei buruzko hitzaldia arratsaldeko 4.30etan Monterronen. Uribarriko Jubilatuta etxeak antolatuta.

18 ASTEAZKENA

- **MEDIKUNTZA NATURALARI BURUZKO HITZALDIA**
Medikuntza naturala eta sendabelarrei buruzko hitzaldia arratsaldeko 4.30etan Monterronen. Uribarriko Jubilatuta etxeak antolatuta.

19 OSTEGUNA

- **ZINE KLUBA**
"Un lugar en el mundo". Zuzendaria: Adolfo Aristarain. Amaia antzokian gaueko 9.30etan. Sarrera: 350 pta. eta gazte txartelarekin 300 pta.

MENDI BIZIKLETAZ IBILALDIA

Urriaren 22an Arrasatetik Osintxura trenbide zaharretik. Irteera lekua Portaloia goizeko 10.30etan, itzulera eguerdiko 1.30etan. 10 urte-tik gorako haurrentzat ere egokia. Lurrats-ek antolatuta.

TAILA IKASTAROA

Goi mailako taila ikastaroa urriaren 21etik aurrera. Iraupena 30 ordukoa, larunbatero goizeko 10etatik 2etara. Kopuru mugatua. Ikastaroa Uriburu kaleko tailerrean emango da. Argibide gehiagorako eta izena emateko dei gualdera 79 40 79 (Felix) edo 79 67 64 (Imanol) zembakietara.

SUKALDARITZA IKASTAROA

Famili eta Gizarte Hezketarako Zentruak antolatuta Sukaldaritza ikastaroa astearte eta ostegunetan goizeko 9.30etatik 11.30etara. Ikastaroa urriaren 19an hasiko da. Izena emateko lokalera joan (Santa Teresa, 12) edo deitu 79 04 59 zenbakira.

ARGAZKI ERAKUSKETA MONTE RRONEN

Urriaren 20tik 31era "Gazteok bizikletan" VI. argazki lehiaketaren erakusketa Monterronen. **Ordutegia: egunero 6etatik 8ak arte eta larunbat eta jaiegunetan 12etatik 2etara eta 6etatik 8ak arte.**

EUSKAL DANTZEN IKASTAROA

Gazte bulegoak Lore Gazteak dantza taldearekin elkarlanean Euskal dantzen ikastaroa antolatu du urriaren 20tik abenduaren 15a arte ostiralero arratsaldeko 7etatik 8.30etara. 15 urtetik gorakoei zuzendua, maila desberdinak. Izenematea 1.000 pta., gazte bulegoan.



LURRATS

Oinezko eta Bizikletazale Elkarte

Mendi-bizikletaz ibilaldia

ARRASATetik OSINTXUra trenbide zaharretik

Eguna: **Urriak 22. Igandea**

Irteera lekua: *Portaloia*

Irteera ordua: *Goizeko 10.30etan*

Amaiera ordua: *Eguerdiko 13.30ak*

Ibilbidearen luzaera: *33 km.*

"Trenbide zaharra oinez eta bizikletaz ibiltzeko"



* Lia Aituna

Juratuaren Legea

J oan zen maiatzaren 23an Estatuko Boletin Ofizialean argitaratu zen 5/1995 Lege Organikoa Juratuaren auzitegiari buruzkoa. Honek Konstituzioaren 125. artikuluan aurrikusitako printzipio demokratikoa praktikan jartzea suposatzen du, hiritarrek arazo publikoetan parte hartzea alegia.

Instituzio hau hiritarrak modu zuzenean Estatuko boterean parte hartzeko eskubide bezala agertzen da, baina baita betebeharrak bezala ere. Edozein hiritar baldin eta 18 urtetik gorakoa bada, irakurtzen eta idazten badaki eta epaimahaikide funtzioa betetzea galeraziko dion ezgaitasun fisiko edo psikikorik ez baditu, juratuko partaide aukeratua izan daiteke zozketa bidez.

Juratuaren auzitegi hauen kompetentzia eremua nahiko

zabala da, giza bizitzaren aurkako delituak, ingurugiroaren aurkako delituak, funtzionari publikoek egindako delituak etab. auziperatuko ditu. Azken finean, jokaera penal garrantzitsuen auziperatze eta epaitzean hartuko du parte.

Juratuak, bederatzikidez osatutakoa, behin juizioa bukatuta errudun edo errugabe erabakia emango du. Erruduntasuna ezartzeko gutxienez zazpi botu ematea

.....

“Juratua ezartzeak printzipio demokratiko bati erantzuten dio, ... baina aplikazioan arazo larriak sor daitezke”

eskatzen du legeak, eta errugabezia ezartzeko bost botu eman behar dira. Errugabetasun berediktua Epailea behartuko du eta askatasun sententzia derrigorrezkoa da. Baina berediktua erruduntasuneko balitz, behin Ministeritza Fiskala eta akusazioa entzunda, dagokion zigorra emango da.

Juradoo ezartzeak printzipio demokratiko bati erantzuten dio, hiritarren parte hartze handiagora suposatuko du arazo publikoetan, baina bere aplikazioan arazo larriak sor ditzake, adibidez jendea ez egotea prestatua pertsona bat epaitzeak suposatzen duen erantzunkizuna bere gain hartzeko. Bestalde, sistema honen aurkakoek argudiatzen dute arazo hauen erabakia pertsona ez teknikoaren esku uzteak, manipulazio arrisku handiagora duela, eta baita presio talde eta komunikabideen aldetik kontrol handiagora ere.

* ABOKATUA

USTEAK USTE

DELINKUENTZIA

Pasa diren egunetan, Elkarte Autonomoko Fiskal Nagusiak, aurtengo txostenean azaldutakoak izan dira berri. Bere esanetan delitu kopurua gehitzeko arrazoia, gizarte honetako balore etikoaren galtze batek dakar, eta horien artean, dibortzioa, abortoa, homosexualitatea... Harritu naizenik ezin esan, hamaika holako!... Justiziarren partaide asko eta asko Jauregi bertako pasiloetatik ere ez da ibiltzen: Bilbokoe-tan, eta “delikente” gisa nortzuk egoten diren begi bistan dago: Gehienek ez zuten irakurriko edo entzungo Cardenalen hitzak, eta askok, entzunda ere, ulertu?

Otxarkoaga, Barakaldo, Sestao, Lamiako... inguru hauetako zenbait auzoko kideak dira Bilboko Epaitegitako “bezero”. Jaio eta bizi diren kaletatik buelta bat ematea nahikoa da Arrasate eta toki horiek, ordubete ez baino neurtu ezingo distantzia batez sentitzeko, eta berehala pentsatzeko: Zein ote delikentea, esperantzarik gabe heroinaren ilusioari lotzen zaiona, ala besteengan esperantza erahiltzeko gaitasun osoa duena? Imajinak hezur muinetaraino sartzen duen leiakorkeriari jarraitu nahian Epaitegieta-ko bezero bukatzen duena, ala leiakorkeriak dakarren banaketa beharrezko duen podereko partaideak?... Hala jarrai dezakegu, baina ez dago entzun eta ikusi nahi ez duen bainoitsu eta gor handiagorik, are gehiago, herrietako, kaletako, usaitxar, lokatz eta lohikerietara sekula santan jeistea burutik pasa ere ez bada egiten... Berdintasuna goitik behera begiratuz egiten ote?

NEKANE SAN MIGUEL

OSORIK
PUB

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE



HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE

Altzariak
Diseinua
Apainketa

M
ARENAZA

Bizkai, 1 ARETXABAETA
Tfnoa: 79 08 07

Ondo dago PESAko autobusak bakarrik erdialdean gelditzea?



Nuria Zabaleta
Langilea
(24 urte)

Oso gaizki. Musakolan bizi naiz eta astean birritan Gasteiza joan behar izaten dut. Denbora galtzen dut autobusa hartzeko eta bueltatzeko erdialderaino joaten.



Maria Luisa Garcia
Langilea
(39 urte)

Nik ez dut autobusa erabiltzen baina prentsan jasotuen arazo horren berri eta oso gaizki iruditzen zait. Autobusa erabiltzen dutenentzat arazo bat izan behar du.




Dionisia Murgiondo
Langilea
(61 urte)

Arazo bat da. Santamainan bizi naiz eta Musakolan hartzen nuen autobusa. Orain erdialdera joan behar dut eta ez nago ados erabaki horrekin.




Maria Jesus Garcia
Etxekoandrea
(60 urte)

Oso gaizki dago, Musakolan eta San Andresen bizi direnentzat urruti geratzen da erdialdeko geltokia.




Gorka Arregi
Ikaslea
(22 urte)

Txarto iruditzen zait eta are okerrago aurrez horren berri ez ematea. Jende asko autobusaren zain egon da Musakola eta San Andresen bertatik ez zela pasatuko jakin barik. Duela egun gutxi autobusa galdu nuen nik.




Ignacio Iñurrieta
Jubilatua
(68 urte)

Nik ez dut autobusik erabiltzen, semeak kotxean eramatzen nau eta. Dena den gaizki iruditzen zait baina ez dut uste ezer egin dezakegunik.



Javier De la Torre
Langilea
(35 urte)

Ez dit kalterik egiten, erdialdeko geltokian hartzen dut autobusa eta, baina Musakola eta San Andresko jendearentzat arazo bat dela uste dut.



Jose Angel Iborra
Taxista
(40 urte)

Ez nekien baina harrিতuta utzi nauzue. Oso gaizki iruditzen zait. Autobusa betiko tokietan geratu beharko litzatekeela uste dut. Gainera Arrasate oso herri luzea da eta erdialdera etortzeko asko ibili behar da.

**ONGI ETORRI,
konpainia onean
egoteak badu
abantailik.**



**SEGUROS
BILBAO**

- Bizitza
- Etxebizitza
- Autoa
- Etabar

Otalora Lizentziatua, 5

20.500 ARRASATE

☎: 79 70 67



Arrasateko teknologi ikertegiak tresnaren zati mekanikoa egingo du besteak beste.

Esperimentu espazial batean parte hartuko du Ikerlanek

Frantziako zentru espazialak esperimentu bat egingo du espazioan, grabitate-rik ez dagoen tokian gizakiak zein jokaera duen aztertzeko. Ikerketa hori egingo duen tresna Matra Marconi Space enpresa frantziarrak egingo du, eta asmakizun horren zati bat Ikerlanek.

Arrasateko teknologi ikertegiak tresnaren zati mekanikoa eta bisualizaziorako elementua egingo ditu. Astronautek markagailu isladatzaileak eramango dituzte gainean eta markagailu horien informazioa kamarek jasoko dute. Kamaren informazioa ordenagailura pasatuko da, eta ordenagailuko emaitzekin gizakien burmuinak zein jokaera

duen aztertuko da. Ikerlanek ordenagailuaren zati bat egingo du.

Esperimentua, Kinelite izeneko, 98an abiatuko da NASAREN Shuttle espaziountzian beste saiakuntza batzuekin batera eta bi aste egingo ditu espazioan. Ikerlanek urte amaierarako gertu izango du hasierako erakustaldia egingo duen tresna eta 98rako espaziora abiatuko dena egin beharko du.

Urtebete pasa da Ikerlanek Ramses esperimentuan parte hartu zuenetik. Orduan egindako saiakera arrakastatsua izan zenez, orain bigarren batean parte hartzeko aukera luzatu dio Ikerlani Matra Marconi Space enpresak.


MCCk salmentak gehitu

Uztailerako 133.666 milioi pezetako salmentak izan zituen MCCko industri taldeak. Iazko urtearekin konparatuz gero, %21 gehiago saldu zuen. 50.662 milioi pezeta atzerrian egindako salmentetatik lortu ziren.

Irizarren autobusak Txinan

Irizarrek Txinako Tianjin hirian egindako lehen autobusak ikusiko dira hango errepideetan ekaina aldera. Jakinaenez, Irizarrek, Asturiaseko Alsa enpresarekin eta txinatar batzuren laguntzaz, autobusak egiteko proiektu batean hartzen du parte. 1.500 milioiko inbertsioa egin zen hasieran eta Irizarren gain geratu ziren zuzendaritza eta autobusen produkzioa. Datorren urteko ekainean irtengo litzateke lehen autobusa eta hirugarren urterako 1.000 autobus inguru egitea aurrirakosten da.

Txinan egindako autobus gehienak bertan salduko badira ere, baliteke batzuren batzuk handik kanpo saltzea.



URONDO

elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa
Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76
ARRASATE



Lehenengo lerroan ageri direnak dira kaleratutako langileak: V. Fernandez eta J. J. Da Costa.

Bi langile kaleratzeagatik zigortu dute Egaralur S. M.

Eibarko Gizarte Epaitegiak Oñatiko Egaralur enpresa eraikitzailearen aurkako epaia plazaratu du, bi langile arrasatear arrazoirik gabe kaleratzeagatik.

Lanik ez zegoela arrazoituz, zazpi langile kaleratu zituen apirilean Egaralurrek. Bostek enpresak emandako indemnizazioa onartu zuten erabakia, baina bi langilek errekurritu egin zuten. Eragalurrek kaleratzea arrazoitze aurkeztutako argudioak balio gabekoak direla eta, bi aukera eman dizkio epaitegiak: bost eguneko epean eta lehen zituzten baldintzetan bi langileak berriro hartzea edota 12.180.041 eta 12.213.180 pezetako indemnizazioak ordaintzea, gehi sei hila-

beteko soldata. Epaiauren aurkako errekurtsioa aurkeztea nahi izanez gero, gainera, zigorreran zehaztutako dirua aurkeztu beharko du Egaralurrek. Bost eguneko epea gaur bukatzen denez, gaur jakingo da enpresak zein aukera onartu duen.

CC.OO sindikatuak prentsaurrekoa eskaini zuen atzo, epaiaren emaitza ezagutzera eman eta hainbat kaleratze legearen aurkakoak direla salatzeke. J.R Garairen esanetan, "lan erreformaz baliatuz langileak kaleratzeko erraztasuna dago eta batzuk indemnizazio txikiekin joatea onartzen dute. Epaia-aren emaitzak erakusten du indemnizazioak ez direla besterik gabe onartu behar".

Autoenplegurako laguntza Udalaren eskutik

INEMek Arrisku Soldata programarako dirulaguntzarik gorde ez duenez, autoenplegurako laguntza emango du Arrasateko Udalak.

Arrisku soldatan proiektu bakoitzeko partaide bati soldata ordaintzen zitzaion baina autoenplegu programan ez da soldatarik izango. Ikastaro teoriko praktikoa emango zaie enpresa bat eratu nahi dutenei eta horrez gain, tutoritza eskainiko zaie ideia aurrera eramanez. Laguntza ekonomiko dagoenez, desplazamendu eta dokumentazio gastuak ordaintzeko dirulaguntza izango dute proiektuan parte hartuko dutenek. Udalak gutxira 3.750.000 pta. gastatuko ditu programa honetan.

Proiektuak azaroaren 10erako aurkeztu beharko dira eta zortzi edo hamar proiektu onartzeko asmoa dago.

Autoenplegurako programa abenduan hasiko da eta 96ko martxora arte iraungo du. Interesatuak Udalaren enplegu zerbitzura joan beharko dira eskabide orria jasotzera.

DIARIO VASCO


kutxak jakinarazten du

arrasatearrendako bere zerbitzua hobetzeren, zabaldu egin duela **ARRASATE-PORTALOIO**ko bere bulegoaren jendearendako arreta-ordutegia, berau, hemendik aurrera, **arratsaldero** (astelehenetik ostegunera bitarte) eta **larunbatetan** egongo baita zabalik, ordutegi honetan egon ere:

Arratsaldez: 16.15etatik 17.45ak arte. **Astelehenetik ostegunera.**


Larunbatez: 8.15etatik 13.00ak arte.

Kutxak, era berean, gogorarazi nahi dizue, bai Portaloiko bulegoak, bai gainerako sukurtsalek, **goizez**, orain arteko ordutegiari eutsiko diotela, hau da, astelehenetik ostiralera, **8.15etatik 14.15ak arte.**



gipuzkoa donostia kutxa
caja gipuzkoa san sebastian

Elektroinjekzio
Zerbitzua



ARRASATE KONPONKETAK

Zalditze kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE



PEUGEOT

Salmenta eta
zerbitzua

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE




Napartheid komiki aldizkariaren ale berria aurkeztu zen ostiralean Gaztetxean. Berandu samar hasi zen aurkezpena inpri-

mategian arazoak izan zituztela eta. Baina arazoak konpondu ostean 7.30ak aldera aurkeztu zen 19. zenbakia.



Jon Ander Eizagirre eta **Maria Luisa Prieto** uztailaren 29an ezkondu ziren Dorletan. Ezkon-bidaian Estatu Batuetan izan dira. Zorionak!



Maritxu kajoi gero eta arrakasta handiagoa hartzen ari den jaia ostiralean ospatu zen jendez gainezka eta eguraldi ezin hobez. Maritxuri lore eta kantu eskaintza egin zitzaionean Parrokia inguruak jendez josita agertu ziren. Gauean berriz, ez zegoen tabernetan sartzerik, eskerrak eguraldi ona egin zuela eta kanpoan ederto egoten zela!



Arantzazu Loidi eta **Mikel Izurrategi** Dorletan ezkondu ziren domekan eta giro atseginean Gure-Ametsa jate-txean izan zuten bazkaria. Ezkon -bidaian Lanzarotera

joan dira. Etxe honetako zuzendaria izan da Arantzazu hainbat urtetan eta une pozgarri hauetan zorion beronenak zure lankide izan ziren guztien aldetik.

ARGI PLASTIC

- PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atekak, manparak...
- Lantegitik zure etxera zuzenean

**Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik**



Tailerra eta Bulegoa: Axeri, 3 Tfnoak: 77 11 30



**Taberna-jatetxea
Kafetegia**


- Eguneroko menua eta kartako menua
- Bazkari azkarrak, pizzak, hanburgesak, sandwichak,...

Prezio guztiz eskuragarriak!!

Larrea enparantza, 5 behea Tfnoa: 77 01 69

Zaldibarko Futbito Txapelketa

*Maritxu Kajoiren
bixamonarekin batera hasi zen
txapelketa • Protagonistak:
Galder Axpe eta Gustavo
Carrero • Sailkapenak • Argi
Ibili, Bukanak, Jotakabau eta
Leya taldeen aurkezpena*



Lau hilabeteko atsedenaldiaren ondoren, zapatuan jarri zen baloia jokuan Zaldibar txapelketan eta txapelketarekin batera abian jarri dugu astero zuekin egongo den lau orrialdeko Zaldibar gehigarria.

Lehen ihardunaldian normaltasuna izan zen nagusi. Faboritoek irabazi egin zuten eta ezuste handirik ez zen egon. Harmailak jendez gainezka egon ziren batez ere lehen partiduan.

Arreta
handiko sukaldea

UGARAN
jatetxea

Giro
abegikorra

Garagartza auzoa. Tfnoa: 79 76 58

ARRASATE

Sailkapenak

A taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurrk.	
Kamasutra	1	1	0	0	6	1	2
Argi Ibili	1	1	0	0	9	3	2
Sokoakoak	1	1	0	0	10	4	2
Orlando Piratas	1	1	0	0	7	3	2
Frantziskanner	1	1	0	0	6	3	2
Arrasate Kirolak	1	1	0	0	4	2	2
Toss Tehaman	1	1	0	0	5	3	2
Uglys Txinato	1	0	1	0	6	6	1
Jotakabau	1	0	1	0	6	6	1
Totem	1	0	1	0	1	1	1
Tronkoteak	1	0	1	0	1	1	1
Gaztetxokoa	1	0	0	1	3	5	0
Kakajauri	1	0	0	1	2	4	0
Gualtrapas	1	0	0	1	3	6	0
Sortu Informatika	1	0	0	1	3	7	0
Alealee	1	0	0	1	4	10	0
Bukanak	1	0	0	1	3	9	0
D.A Iriztu	1	0	0	1	1	6	0

B taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurrk.	
Fosforos	1	1	0	0	5	0	2
Aizpun Bila	1	1	0	0	3	0	2
Lorategi	1	1	0	0	3	0	2
Okoretegi	1	1	0	0	2	0	2
Altza Porru	1	1	0	0	8	1	2
Adelaida Haizea	1	1	0	0	7	3	2
Berango Sukaldeak	1	1	0	0	6	3	2
Txeyenex	1	1	0	0	2	1	2
A.C Surcos	1	1	0	0	4	3	2
Los Heredia	1	0	0	1	3	4	0
Hirei	1	0	0	1	1	2	0
Ojo Avisore	1	0	0	1	3	6	0
DKB	1	0	0	1	3	7	0
Los Dalton	1	0	0	1	1	8	0
6º Proiektua	1	0	0	1	0	2	0
KirtenTropel	1	0	0	1	0	3	0
Fraguel Gol	1	0	0	1	0	3	0
Kopyprest	1	0	0	1	0	5	0

C taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurrk.	
Kamasutra	1	1	0	0	6	1	2
Borrock Rol	1	1	0	0	3	0	2
Trikiti	1	1	0	0	8	2	2
Anbotoste	1	1	0	0	3	1	2
Txrokis	1	1	0	0	3	1	2
Betrayer	1	1	0	0	3	1	2
A ti que te importa	1	1	0	0	2	1	2
No Comment	1	1	0	0	7	5	2
Lautherbrunnen	1	1	0	0	7	5	2
Los Dimy	1	0	1	0	2	2	2
Nuevo Taberna	1	0	1	0	2	2	1
Genbelas	1	0	0	1	5	7	1
Cons Fecon	1	0	0	1	5	7	0
Irati STS	1	0	0	1	1	3	0
Arrasate Zoo	1	0	0	1	1	3	0
Insert Coin	1	0	0	1	1	3	0
HMKL	1	0	0	1	2	8	0
Elisabeth	1	0	0	1	0	3	0

D taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurrk.	
Fosforos	1	1	0	0	5	0	2
MSM Inge	1	1	0	0	5	0	2
Koka Juniors	1	1	0	0	4	0	2
Pub People	1	1	0	0	14	4	2
Zotz Motz	1	1	0	0	3	1	2
Kinito Team	1	1	0	0	3	1	2
Aurrera Bolie	1	1	0	0	5	2	2
Danok Lagun	1	1	0	0	5	2	2
Leya	1	1	0	0	6	3	2
Cer Leintz	1	1	0	0	4	2	0
Perrahotsa	1	0	0	1	2	4	0
Ke Oxtias	1	0	0	1	3	6	0
Kriskibalda	1	0	0	1	2	5	0
Pepelus	1	0	0	1	2	5	0
Artzankos Udalaiz	1	0	0	1	1	3	0
Resakas	1	0	0	1	1	3	0
Exc Lete	1	0	0	1	4	14	0
Baneuko	1	0	0	1	0	4	0

Emaitzak

A Taldea

Kakajauri2 - Arrasate Kirolak 4
Argi Ibili 9 - Bukanak 3
Orlando Piratas 7 - Sortu Informatika 3
Toss Tehaman 5 - Gaztetxokoa 3
D.A Iriztu 1 - Kamasutra 6
Tronkoteak1 - Totem 1
Gualtrapas 3 - Frantziskanner 6
Jotakabau 6 - Uglys Txinato 6
Sokoakoak 10 - Alealee 4

B taldea

Los Heredia 3 - AC Surcos 4
Ojo Avisore 2 - Berango Sukaldeak 6
Txeyenex 2 - Hirei 1
Fraguel Gol 0 - Aizpun bila 3
Adelaida Haizea 7 - DKB 3
Fosforos 5 - Kopyprest 0
KirtenTropel 0 - Lorategi 3
Itza Porru 8 - Los Dalton 1
Okoretegi 2 - 6º Proiektua 0

D Taldea

Cons Fercon 5 - No Comment 7
Anbotoste 3 - Insert Coin 1
Betrayer 3 - Potrosorri 1
Nuevo Taberna 2 - Los Dimy 2
Genbelas 5 - Lautherbrunnen 7
Elisabeth 0 - Borrock Roll 3
Irati STS 1 - A ti que te importa 2
HMKL 2 - Trikiti 8
Txarokis 3 - Arrasate Zoo 1

E Taldea

Exc Lete 4 - Pub People 14
Resakas 1 - Zotz Motz 3
Pepelus 2 - Aurrera bolie 5
MSM Inge 5 - Petroleros 0
Danok Lagun 5 - Kriskibalda 2
Kinito Team 3 - Artzankos Udalaiz 1
Leya 6 - Ke Oxtias 3
Baneuko 0 - koka Juniors 4
Cer Leintz 4 - Perrahotsa 2

Hurrengo partiduak

Osteguna 12

Zaldibar

8.50 Lautehrbrunnen - Borrock Roll
10.00 Kirten Tropel - Okoretegi taberna
11.00 Sortu Informatika - Gazte Txokoa
12.00 Los Heredia - Ojo Avisore
13.00 Danok Lagun - Kinito Team
14.00 Kakajauri - Argi Ibili
15.00 AC Surcos - Berango Sukaldeak
16.00 Potrosorri - Los Dimy
17.00 Arrasate Kirolak - Bukanak
18.00 Exc Lete - Resakas
19.00 Adelaida Haizea - Fosforos

Ostirala 13

Zaldibar

8.50 Cons Fercon - Anbotoste
10.00 Kriskibalda - Artzankos Udalaiz
11.00 Gualtrapas Sokoakoak
12.00 Hirei - Aizpun bila
13.00 Pub People - Zotz Motz
14.00 Orlando Piratas - Toss Tehaman
15.00 No Comment - Insert Coin
16.00 Aurrera Bolie - Petroleros
17.00 DKB - Kopyprest
18.00 Pepelus - MSM Ingeni
19.00 Genbelas - Elisabeth

Larunbata 14

Zaldibar

9.50 Irati STS - Txarokis
11.00 Leya - Cerv Leintz
12.00 Betrayer - Nuevo Taberna
13.00 Franciskanner - Jotakabau
14.00 Los Dalton - 6. Proiektua
15.00 Koka Juniors - Perrahotsa
16.00 Kamasutra - Totem
17.00 Ke Oxtias - Baneuko
18.00 Trikiti - Arrasate Zoo
19.00 Txeyenex - Fraguel Gol

Igandea 15

Zaldibar

9.50 A ti que te importa - HMKL
11.00 Uglys Txinato - Alealee
12.00 Lorategi - Altza Porru
13.00 D.A Iriztu - Tronkoteak

Protagonistak


Galder Axpe Antolatzailea

— Zaldibar txapelketa antolatzeak lan asko eskatzen du?

— Lana baino ordu asko. Partidu ugari ikusi behar dugu astero eta batzutan gogorra egiten da. Antolatzaile izateko txapelketari behar duen denbora eskaintzeko gertu egon behar duzu eta gogoia izan.

— Zenbat partidu ikusten duzu asteburutan?

— Normalean bost gehiago, lagunak ikustera



etortzen naiz eta.
— Zeintzuk dira antolakuntzaren aurtengo helburuak?
— Herri mailako txapelketa

handiena eta onena izatea, bai partetehartzaile kopuruari dagokionez eta baita antolakuntzaren aldetik ere.

— Talde berri asko dago?

— Ez, iazkoak dira gehienak. Talde batzuk elkartu egin dira eta beste batzuk izena aldatu dute

— Talde faboritoak?

— Oraindik goiz da hori esateko, baina betikoak ibiliko dira goian Adelaida, Argi ibili. Urtero egoten dira ezusteak eta partidu batzuk jokatu arte eta taldeen maila ikusi arte, ez dago esaterik.

Labur

■ **LEHEN IHARDUNALDIA.** Normaltasun osoz jokatu zen Zaldibar txapelketako lehen ihardunaldia. Zaldibarren jokatu zen lehen partiduan izugarritzko giroa egon zen, harmaiak jendez gainezka eta trajedun ugari. Ezin etxera joan eta haize freskua hartzera Zaldibarrera. Ez dago txarto!

■ **GOLAK:** Lehen ihardunaldian 248 gol sartu dira. Pub People 14 golekin ihardunaldiko talde goletzailleena izan da.

Gustavo Carrero Jotakabau taldekoa

— Zenbat urte parte hartzen txapelketan?

— Bost urte gutxienez, ez naiz ondo gogoratzen baina hasieratik nabilela uste dut.

— Zer da zuretzat Zaldibar Txapelketa?

— Lagunekin egoteko aitzaki bat eta era berean ondo pasatzeko tokia,


nahiz eta batzutan haserretu galdu egin dugulako eta iskanbilaren bat gertatu delako.

— Jota Akabau taldearen helburua?

— Une honetan hurrengo fasera pasatzea, gero etorriko dira etorri beharrekoak.

— Noiz jokatzeko gustuzen zaizue goizez edo arratsaldez?

— Niri domeketan eta eguerdiko 12etatik aurrera.



— Zaldibar edo iturripe?
— Zaldibar zalantza barik.

Hobeto jokatzen da, leku gehiago dago eta ikusleen artean saltsa hobea.

— Antolakuntza zer iruditzen zaizu?

— Antolatzaileak zoriondu behar ditugu. Urtero urtero horrelako txapelketa bat antolatzea ez da nolanhikoa gauza eta hauek ederto egiten dute.

— Talde faboritorik baduzu?

— Geurea jakina, Jota Akabau.



Kalitate gorena leihoretan

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Zigarrola, 1 - 8. pabilioia Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE

LARUNBATAK LARUNBATAK

INGELESA eta ALEMANA
APUNTA ZAITEZ ORAINDIK EGIN EZ BADUZU

LARUNBATAK
9.30etatik 12.30etara

CIM
HIZKUNTZAK-IDIOMAS

Araba Etorb., 4
ARRASATE

Tfnoak: 79 01 32
79 65 54



Argi Ibili



Bukanak



Jotakabau



Leya

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalen osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak:
**CRISTOBAL
ESTOMBA
GOMEZ
MURGIENDO
OTALORA
RUIZ**



Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

ATBko harrobia

Maidar Egües

“ETBri eta telebista handiei kosta egiten zaie onartzea txikiagoei begiratu beharra daukatela, baina ATBko harrobia ikusi ondoren ez dute beste erremediorik izan. ATB telebista handiagotara joateko zuzeneko bidean bihurtu da” dio Jon Anduezak. Berak, beste 9 lagunekin batera, herriko telebistan hasi eta ikasi ondoren, gaur egun ETBn lan egiten du. Duda barik ATB komunikabide handietara joan ahal izateko geltoki garrantzitsu batean bihurtu da, edo behintzat, hori esaten du jende guztiak.



Annek ere ATBn eman zituen lehen pausuak.

Duela bost urte komunikabide eta aldi berean eskolazateko helburuz sortu zen ATB. Bertako aurkezle, tekniko eta kazetarien saltoa, fenomeno batean bihurtu da. Bost urtetan 10 lagun komunikabide handiagotara joan izana ezin da kasualitatea izan.

Lehenengo Anuska Lasa, gero Anne Igartiburu, ondoren Jon Andueza eta ondorengo bagoietan Lutxi Arregi, Andoni Urzelai, Iban Lizarralde eta Jon Etxebarria. Treina hartu duten azkenak berriz,

Mikel Irizar, Aintzane Gardoki eta Joxe Aranzabal izan dira. Bakoitza lan desberdinetan dabil baina guztiak ATBn ikasi dute zer den kamara baten aurrean jarri, hitzegin eta lotsa alde batera utzi, albiste bat minutu gutxitan landu eta erlojuaren aurka lan egiten. Horiek dira azkenean telebista txiki eta handietan egiten den lanaren oinarriak, desberdintasun bakarra medioak ei dira.

ATBREKIN ZORRETAN

ATBko eta telebista handietako lanaren artean desberdintasun handia dagoela

uste dutenak oker dabilta. Trenera igo diren guztiak gauza batean daude ados: ETB edo TVE kateetan egiten den lana ez da hain desberdina. Gainera, ATBn dauden medioak beste kateetakoak baino urriagoak dira eta horrek bere alde ona du: ATBn alor guztietan lan egiten ikasten da. Kamararekin lan egiten duen batek kazetari, telefonista eta aurkezle lanak egin behar izaten ditu; gauza bera kazetariak.

Erreportai honetako protagonistak guztiak ATBn ikasi zuten gaur egun ETBn edo TVEn egiten dutena. Argi zeukaten ATB geltoki bat bai-

no ez zela eta trenak aurrera egin beharra zuela. Horregatik ATBn egon ziren denboran ikasi beharreko guztia ikasi eta orain telebista handietan aplikatzen dute. Eurentzat bi gauza bakarrik aldatu dira: jende gehiago daukate begira eta medio hobeekin egiten dute lan.

ANNE, JON ETA LUTXI

Bata elorrioarra, bestea arrasatearra eta azkena elgoibartarra. ATBn ezagutu zuten elkar eta bakoitzak bide desberdina hartu ondoren, patuak berriz elkartu ditu. Gaur egun ETB-1eko “Elkanotarrak”

lehiaketan dabilta.

Anne Igartiburu, lehen kategoriako txartela duen ATBtarra da. Ikerlanen zeukan Harreman Publikoko lanarekin batera "ATBketan" eta "Bakarka" saioa aurkezten hasi zen ATBn. Azkenean Ikerlaneko lanari utzi zion eta apostu garrantzitsua egin zuen: ETBko "Boulevard" eta "Show Show" programak aurkeztera joan zen eta duela gutxi "Tele 5"ko "Una pareja feliz" lehiaketan ibili da. Tartean mila gala eta programa berezi aurkeztu ditu eta orain Jon Anduezarekin batera "Elkanotarrak" lehiaketan ikusten zaio. Ezin aipatu barik utzi grabatu duen pelikula eta TVEreko "La Batalla de los Castillos" lehiaketan egiten duen lana ere.

Jon Anduezak hiru urte eman zituen Arrasate Press eta ATBn. Ondoren trenea hartu zuen eta "Hor dago Koxka"ko geltokian geratu zen. Gerora, berak sortutako programa aurkeztu zuen, "Gutxi gorabehera". Orain "Elkanotarrak" lehiaketan produkzio eta aurkezle lanak egiten ditu.

Lutxi Arregi telebista teknikoak 3 urte egin zituen ATBn eta hemen ezagutu zituen gaur egun lankide dituenak. ETBra joan aurretik intsumisioagatik gartzeleratu zuten eta gaur egun "Elkanotarrak" produzitzen den Ibarbia produktoran pasatzen du eguna eta gartzelan gaua. Hala ere ohitu egin dela aitortzen du: "Beste roilo bat daukat buruan. Lo gutxi egiten da gartzelan baina oheratu orduko goiza izaten da askotan. Lotara joan baino lehen partxisean jolastu eta 7etan jaikitzen naiz".

Hiru lagun hauek argi daukate ATBn ikasitakoari esker daudela dauden tokian eta Arrasateko herri telebista harrobi garrantzitsua dela.




Mikel Irizar, Aintzane Gardoki eta Joxe Aranzabal. ATBko aurkezleak eta zuzendari ohia ETBko *Hitzaro* saiora

Era berean ATB eta aldizkariko langileek herriko telebista komunikabide handiagoetara joateko pasabide bezala ikusi behar dutela uste dute. "ATB eskola bat da eta beti izan dut argi ez nintzela hemen geratuko. Horrela pentsatu beharko lukete gaur egun ATBn edo Arrasate Pressen lan egiten duten guztiek" dio Jonek. "ATBn gauza asko ikasi nituen, egia esateko, dena. Nire lana orain, lehiaketarako familiak aurkitzea da eta ATBn telefonoz hitzegiten eta lotsarik ez izaten ikasi nuen, nahiz eta nire lana teknikoarena izan" aitortzen du Lutxik.

Dena den telebista handietan txoko bat egiteko orduan, aurkezleek teknikoek baino erraztasun gehiago dutela uste du Lutxik, "merkatua teknikoak beteta dago eta hauetako askok lanpostu finkoa lortu du ETBn. Euskaraz ondo hitzegin eta aurrez esperientzia duen aurkezle gutxiago dago. Dena dela momentuz lanean nabil eta pozik gainera."

IBAN ETA JON, JON ETA IBAN

"Injineritza ikasten dugu, baina oso umoretsuak gara. Eskola Politeknikoak ez digu broma gehiegi egiteko auke-



Andoni Urzelai, ATBko teknikoa urte askotan, TVE-2ko *Bricomarian* dago errealizatzaile gisa.



Anuska Lasca, ATBko *Bapirulauke* une saiotik *Goenkalera* pasatu da.



Lutxi Arregi, lehen ATBko teknikari, orain ATBko *Elkanotarrak* lehiaketako ekoizpen lanetan.

Lutxi Arregi
"Merkatua teknikoak beteta dago eta hauetako askok lanpostu finkoa lortu dute. Aurkezleek errezago daukate".



Jon Andueza
"ATB eskola bat da eta beti izan dut argi ez nintzela hemen geratuko. Horrela pentsatu beharko lukete gaur egun ATBn lan egiten duten guztiek".

rarik ematen, horregatik hasi ginen telebistan, gure saltsan geundela sentitzen genuelako".

"ATBketan" lehiaketan partaide izatetik aurkezle izatera pasatu ziren. Umore sanoa da biek daukaten berezko doaia eta kamara aurrean batak bestea barik ez duela funtzionatzen aitortzen dute. Horri esker eraman zituen Jon Anduezak "Gutxi gorabehera" lehiaketara: "Jendeak uste duena baino zailagoa egin zitzaigun ETBkoa, nahiz eta gure lana oso txikia izan" esaten du Ibanek.


ETBn berriz ikusiko ote ditugun galdetzean, zera erantzuten dute: "Jon Andueza da gure entrenatzailea eta



Maider Egües, ATBko *Berriak*-en aurkezle eta TVE-2ko *Frontón* saioko elkarrizketatzaile.



Jon Etxebarria eta Iban Lizarralde, ATBketan lehiaketako aurkezle lanetatik ETB-1eko *Gutxigorabehera* lehiaketara.



Anne Igartiburu eta Jon Andueza, ATBko aurkezleak orain ETB-1eko *Elkanotarrak* saioan daude lanean.



Joxe Aranzabal
“ATB harrobi bat da eta hori hasieratik genekien”.



Aintzane Gardoki
“ETBkoa erabaki gogorra izan da baina gogoz ekin diot lanari”.



Mikel Irizar
“Kamararen aurrean ausarta naiz baina ez dut doai berezirik”.

aurrez ETBn eta Deian kazetaritza lanean ibili. Oraingo ETBko lanari baietza ematean, Hezibiden zuen lana utzi behar izan du eta erabaki gogorra izan den arren, lan berriari gogoz ekin diola aitortzen du.

Mikel Irizar Kutxako lan-kidea da baina telebistan lan egitea oso gustoko duela dio. Kazetaritzarekin sekula ez duela zuzeneko harremana izan esaten du baina beti mugitu da kamara artean. ATBn “Musikantoi” aurkeztu zuen eta duela gutxi “Aste-bete” saioan ibili zen. Denboran gertuago daude Arrasateko politikariak elkarrizketatzen egin dituen hauteskundeak saio bereziak. “Kamararen aurrean ausarta naiz baina ez dut doai berezirik. Telebistari gustoa hartu diot eta inor ez zait etorri laguntza eske; neu izan naiz nire burua eskaini dudana”. Ez zuen ETBkoa espero baina ez zion ezetzik esan ere, “Gauza berriak egitea gustoko dut eta proiektu honetan sartu naiz. Dena dela ez noa Kutxako lana uztera; beti diot Kutxan jubilatuko naizela baina asko saltseatu eta gero.”

Joxe Aranzabal Arrasate Telebista eta Arrasate Press sortu zutenetik bat da eta orain pozik ikusten du eskola honek eman dituen fruituak.

“ATB harrobi bat da eta hori hasieratik genekien. Lana egin eta ikasteko aukera ematen du eta modu batean ala bestean, arrakasta handiagotzat ala txikiagoaz, ATBn ibilitakoak kanpora irtetzen dabilta.”

Orain zuzenduko duen programan fede osoa jarrita du. Euskarari buruzko programa baten beharrak eta jendeak euskararen inguruan daukan interesak animatu zituen gidoia aurkeztera. “Euskara euskaldunei, euskaltzaleei, euskaltzale ez direnei eta erdaldunei interesatzen zaiela uste dugu. Jendeak euskarari buruzko informazioa behar du eta behar hori betetzera dator Hitzaro”.

ANDONI URZELAI ETA MAIDER EGÜES ASEGARREN

Andoni Urzelai atxabal-tarrak 3 urte egin zituen ATBn eta orain Asegarce produktorako “Bricomania” saioan ari da errealizazio lanetan. ATBn egindako lanak asko lagundu diola onartzen du, baita Eskoriatzako Irakasle Eskolan urtebetean egindakoak ere.

Honek berriz, ATBko eta Asegarceko lanak oso desberdin ikusten ditu, jende gehiagorekin lan egiten duela eta lan egiteko era desberdina delako.

Maider Eguésesek 7 hilabetetan zehar ATBko eta Asegarceko lana bateratu zituen. “Frontón” pelota saioan elkarrizketak egiten zituen ikuslearen artean. Honek ere ATBn ikasi zuen kamararen objektibora lotsarik gabe begiratzen.

ATBk bost urte baino ez ditu eta denbora horretan 10 lagunek erabili dute ATBtik telebista handiagotara doan trena. ATB egunez egun hobetzen ari da eta trena gero eta azkarrago doa. Martxa horretan jarraituaz gero asko izango dira ATBkoaren ondorengo geltokirako txartela hartuko dutenak.

berak esaten diguna egingo dugu.”

ETBko AZKEN FITXAKETA

Joxe Aranzabal, Aintzane Gardoki eta Mikel Irizar. Hirukote hau da ETBra alde egin duen azken “Made in ATB”a.

Hizkuntza Politikarako Sailordetzak eta ETBk elkar-lanean sortutako “Hitzaro” euskeraren gaineko programa egingo dute. Joxek programa zuzenduko du eta Mikel eta Aintzane aurkeztu; azken honek kamararen atzean lan egingo badu ere.

Aintzane Gardokik ATBko “Bakarka” saioan jarri zuen bere burua kamara baten aurrean lehen aldiz, nahiz eta

Eskubaloikoek aurkezpena eta denboraldiko lehen erronka

Arrasateko lehen mailako eskubaloitaldeak 95-96 denboraldiko auzpeza egingo du ostegunean arratsaldeko 6etan Iturripen. Iazko taldeko jokalariek gehienek jarraitzen dute baina aurpegi berriak ere badira: bi zehazki, Saul Gonzalez 18 urteko atezaina eta Irungo Bidasoatik datorrena eta Iñigo Lopez de Abetxuco 20 urteko hegaleko gasteiztarra. Beste bi jokalarik territorialetik igo dute: Fran Jimenez 21 urteko arrasatearra eta Eneko Arrieta 19 urteko atxabaltarra. Aurkezpenean bi neurketa jokatu dira. Goizeko 10etan Arrasateko jubenilek Aloñamendi taldearen kontra neurtuko dituzte indarrak eta eguerdiko 12etan Arrasateko lehen mailako taldea eta Ohorezko mailako Arrate B izango dira nor baino nor.

Zapatuan lehen mailako denboraldiko lehen partidua jokatu dute Avileseko Avilesina taldearen kontra Iturripen. Arratsaldeko 6.30etan hasiko da norgehiagoka eta Rosa Lasagabasterrek zuzentzen duen taldeak erakutsi behar du zer egiteko gauza den lehen erronka horretan. Orain arte aurrendenboraldian nahiko ondo jokatu dute etxeko jokalariek, horregatik oso itxaropentsu daude aurten egin dezaketenarekin. Kadeteek



ere zapatuan jokatu dute Elizaran taldearen aurka arratsaldeko 4.30etan.

Azkenean garaipena Atxabalpen

Mondrak eta Balmasedak elkarren kontra neurtu zituzten indarrak domekan Atxabalpen eta Zivojevicen mutilek denboraldiko lehen garaipena lortu zuten 4 eta 0 irabazi ondoren. Itxura berrituta agertu zen Mondra eta atzean zein aurrean ondo jokatuz merezitako garaipena lortu zuen. Une honetan sailkapeneko 18. tokian dago 3 punturekin. Datorren ostegunean Touringen kontra jokatu du Errenderin. Touring taldea sailkapeneko 10. da 8 puntu-

ekin. Orain arte 12 gol sartu ditu eta 8 jaso. Domekan, berriz, Lagun onak taldearen bisita jasoko du Atxabalpen arratsaldeko 4.30etan. Lagun onak taldeak 7 punturekin, bi neurketa irabazi ditu, 3 galdu eta bakarra berdindu. Mondrautarrek azken partiduan bezala jokatzen badute bi garaipen jarraian lor ditzakete.

Urbina Maltzagak ez du bururik altxatzen

Urbina Maltzaga eta Breogan, Eba ligako liderra, izan genituen aurrez aurre domekan Iturripen. Samaniegoren mutilek jokatu beharreko minutuak jokatu 71 eta 79 galdu zuten. Breoganek tal-

de sendoen itxura erakutsi zuen eta kanpoko jokoan bikain arituz beti joan zen aurretik markagailuan. Arrasateko taldean jokalariek onak egon arren, taldeko jokuan ez dira fin ibiltzen, asko kostatzen zaie elkarrekin jokatzea eta hori ez badute zuzentzen nahi baino arazo gehiago izan ditzakete. Urbina Maltzaga, hirugarren jardunaldia jokatu duenean 3 punturekin sailkapeneko 13. tokian dago. Datorren ostegunean Leongo kiroldegian jokatu dute bertako taldearen kontra arratsaldeko 6etan. Domekan Burgoako Maristak taldea izango da aurkaria arratsaldeko 6etan Iturripen jokatu den norgehiagokan.

beatriz
oinetakoak eta poltsak
Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE

beinke

“PAL”
burdindegia,
brikolage
eta tresneria
Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

Lore
Lurrindegia
Olarte kalea, 10 ARRASATE
Tfnoa: 79 52 50

Maier Uranga

"Oso ospetsua izan nahi dut"

16 urte besterik ez eta dagoeneko ETB1eko "Superbat" umeendako saioa aurkezten dabil. Garagartzan bizi da eta Almenen ikasten du. Kazetari izatea gustatuko litzaioke baina kamararen aurrean egotea baino nahiago du paperean idaztea. 300 gazteen artean bera aukeratu dute Euskal Herri osoko telebista saio arrakastatsuenetarikoa bat aurkezteko.

— Nolatan "Superbat" aurkezten?

— Nire lagun bat casting-era aurkeztu zen eta nik ere probatzea erabaki nuen. 300 laguneren artean ni aukeratu ninduten. Almenetik 6 lagun joan ginen Laudiora froga egiten.

— Baina telebistan lan egiteko interes berezirik daukazu ala dibertitzearren besterik ez duzu egiten?

— Kazetaritza ikasi nahi dut. Egunkari batean idaztea gustatuko litzaidake, idatzizko komunikabideak irudizkoak baino gustokoago ditut eta. Mundu horretan sartuz joateko aukera ona izan zitekeela pentsatu nuen eta horregatik joan nintzen casting-era.



— Zer egin behar izan zenuen frogan?

— Lehenengo nire burua aurkeztu, gero rock talde bat, hitz batzuk esan behar izan nituen beranduago, eta azkenean kantatzera ere behartu ninduten...

— Zer kantatu zenuen?

— "Lau teilatu".

— Uste zenuena baino zailagoa izan zen casting-a?

— Egia esan oso urduri nengoen baina froga gelara sartu orduko oso giro ona

zegoela ikusi nuen. Nahiko bromista eta umoretsua naizenez naturaltasun osoz egin nituen egin beharrekoak. Pozik atera nintzen.

— Zein da zure lana zehazki?

— Beste bi mutilekin programa aurkeztea. Aurretik ibili zen "Kixkur"en lana egiten dut.

— Eskola asko galtzen duzu grabaketan ondorioz?

— Ostiraletako klase

guztiak galtzen ditut, ostiraletan eta zapatutan grabatzen dugu eta. Baina ikastolaren aldetik, ez daukat inolako arazorik, eurek animatu gintuzten frogetara aurkezteko. Nire lagunek apunteak pasatzen dizkidate eta momentuz konpontzen naiz.

— Orain arte egindakoarekin pozik zaude? Nola ikusten duzu zure burua telebistan?

— Ba ez nago oso pozik. Grabaketak oso gogorak dira eta bronka asko entzun behar izan dut. Hasieran desanimatuta nengoen baina gauzek hobera egingo dutenaren esperantza daukat.

— Zer esaten dizute lagunek eta kaleko jendeak?

— Lagunak pozik daude eta Almeneko umeak gehiago. Honez gero nor naizen badakite eta ikusten nauten bakoitzean astoratu egiten dira!

— Oso ospetsua egingo zara...

— Bai eta ez dit batere axola. Oso ospetsua izatera heltzea gustatuko litzaidake, dibertigarria izan behar dela uste dut. Lotsabakoa naiz eta jendea begira daukadala sentitzeak polita izan behar du.

Yoa'z oinetakoak
ARRASATEN ZABALDU BERRIA!!

Biteri, 13
Tfnoa: 79 21 71
ARRASATE

Barrenkale, 9
Tfnoa: 76 22 86
BERGARA



- Ordenagailu eta softwarea
- Ploteatze eta eskaneatze zerbitzu berria
- Eta orain **INFORMATIKA IKASTAROAK**

INFORMATICA ALTO DEBA

Uribarri Etorbidea, 22 • Tfnoa: 79 64 74 ARRASATE

Z E R N A H I A G O ?

Arantxa Garcia

"Papur" okindegiko langilea



- Zenbat pastel mota egiten duzue? 50en bat.
- Eta zenbat ogi mota? 12 bat.
- Zein ogi saltzen da gehien? Normala eta fibrazkoa.
- Zuri zein pastel gustatzen zaizu gehien? Hojaldrezkoa.
- Maritxutan gosari asko eman zenituzten? Bai, makina bat.
- Arrasatearrak gozozaleak dira? Bai, oso.
- Hemen lan eginda pastel asko jaten dituzu? Ez, kontrakoa. Pastelek atzerakada eragiten didate.
- Erabiltzen duzu makilariarik? Bai baina gutxi.
- Nekeza da lan hau? Bai, oso nekeza.
- Asko kostatzen da lan honi eskua hartzea? Ez, ez da zaila.
- Nori idatzi diozu azken gutuna? Alemaniako lagun bati.
- Baduzue sekreturik pastelen errezetetan? Ez dut uste.
- Kafe berezirik egiten duzue? Ez.
- Ze infusio mota dituzue? Menta, tea eta kamamila.
- Ze kolonia erabiltzen duzu? "Musk".
- Kafetegiko usainak nazka ematen dizu? Ez, asko gustatzen zait.
- Belarritako luzeak ala txikiak? Orain txikiak, lehen handiak erabiltzen nituen.
- Jantzeko kolore bat? Urdina.
- Zenbat ogi saltzen dituzue egunean? 300 bat.
- Uniformea erabiltzen duzue: axola dizu? Ez, kaleko erropa erabiltzea baino nahiago dut.

LABURRAK

Kantu eta piano emanaldia

Asteartean, urriak 17 eta Arrasate Musikalen eskutik, kantu eta piano emanaldia izango da Amaia Antzokian. Bettina Smith mezzo-soprano noruegarra eta Ana Sánchez Donate pianujole donostiarra eskainiko dute emanaldia.

Kontzertuaren lehen zatian Brahms eta Malheren obrak abestu eta joko dituzte; bigarren zatian berriz, Granados eta Montsalvatgerenak.

Kontzertua arratsaldeko 7.30etan hasiko da eta sarre-rak 500 ptan salduko dira.

AEDko lehiaketak

Zabalik jarraitzen du AEDk urtero antolatzen dituen komiki, ipuin, poesia, bertso-paper, diapositiba, argazki, bideo eta Iokin Zaitegi Itzulpen Laburren sariketetan parte hartzeko epea.

Lanak urriaren 30a baino lehen entregatu behar dira AED elkarteetan. Finalisten zerrenda abenduaren 15ean emango da jakitera eta sari banaketa 21ean izango da Monterronen.




Parques y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.

Lorazaintzako mantenimendua orohar.


Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

“Gure Objektibotik” Lehengo eta oraingo gazteak

Datorren ostegunean urriak 19, mahaingurua estreinatuko du Jon Iñaki Lasak. Lehengo eta oraingo gazteen artean dauden desberdintasunak aztertzea izango da lehen saio honen helburua eta horretarako soziologo bat, Euskal Herriko unibertsitateko irakasle bat eta gazte bat etorriko dira gai horren inguruan hitzegitera. Informatiboen ondoren, 9.30etan egingo da saio berri hau.



KOMIKIA



Ariz Fernandez Ixa-ka komiki taldea

**11 Asteazkena**

20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
“Nor Nori Rock”
musika programa Kaitin
Allende eta Lierni
Uribarrenek aurkeztuta.

16 Astelehena

20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
“Mondrasport” Itxaro
Zubillagak eta Esti Loitik
aurkeztuta.

17 Asteartea

20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30
“Barrelekaixoka”
umeendako programa
Eider Otxoak aurkeztuta.

18 Asteazkena

20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Zinea

19 Osteguna

20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
“Gure Objektibotik”
mahaingurua Jon Iñaki
Lasak aurkeztuta. Gaia:
Lehengo eta oraingo
gazteak.

20 Ostirala

20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
“Astebete” Maria
Agirrek aurkeztuta.

Etxe-Aundi

1. PLATERA

Bi plater aukeran

Etxe gozoteria

2. PLATERA

Haragia edo arraina

Etxe ardo gorria eta beltza

Hafea

Guztira 2.500 pta. (B.E.Z. barne)

GORKA

ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA

Ferrerias, 35 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 78

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
Setatik Setara.

Tfnoa: 79 26 99

Etxebizitzak

- **Bi ohedun gela alokagai.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Garaje itxia alokatzen da Larrea inguruan.** Tfnoa: 79 69 41. Juli.
- **Neska bat behar da Donostian** pisu bat osatzeko (Okendo kalean). Tfnoa: 42 51 49.
- **Pisua alokagai Iturriotz kalean .** 79 15 54. Aintzane.
- **Neska bat edo bi behar dira pisua osatzeko** Leioan. Tfnoak: 79 40 13 (Bea) - 79 02 20 (Eva).
- **Erdialdean dagoen garatea alokatzen da,** itxitakoa. Tfnoa: 79 42 13.
- **Pisu bat alokatzen dut** Udalpe kalean (Erguin). Tfnoa: 79 22 75.
- **Aukera paregabea.** Roneon garageak salgai, prezio onean. 79 21 61.
- **2 garage plaza alokatzen dira Maixorren.** Zerkaostatetik dauka sarrera. Tfnoa: 77 03 22. Bulego orduetan.
- **Garage bat alokatzen da** Altamiran. Tfnoa. 77 03 22. Bulego orduetan.
- **Erdialdean 90 m²ko pisua salgai.** Tfnoa: 79 42 13.
- **Pisua alokagai Maalako Arrabalean.** Jantzi-ta dago. Tfnoa: 77 02 59.

Lana


- **Psikologian lizentziaduna** klase partikularrak edo laguntza berezia emateko prest. Tfnoa: 79 86 28.
- **Injinerutzako ikasleak** OHO, BBB eta LHko eskolak ematen ditu. Tfnoa: 79 16 19.
- **Zuzenbidean lizentziadunak** OHO, BBB eta ingelesezko klase partikularrak emango lituzke. Esperientzia eta talde txikia. Tfnoa: 79 28 80.
- **Emakumea gertu umeak eta pertsona nagusiak zaintzeko.** Esperientziaduna. Tfnoa: 79 28 80.
- **Frantziar batek frantsesezko klase partikularrak** ematen ditu. Tfnoa: 79 35 95.
- **Jatetxe batean zerbitzaria eta sukalde laguntzaile** esperientziadunak behar dira. Tfnoa: 71 43 45.
- **Etxe, taberna edo edozein lokaletako** garbiketarik egingo nituzke. 79 37 95 (Garbiñe).
- **Haurrak zaindu** edo garbiketarik egingo nituzke. Tfnoa: 77 06 43.
- **Etxe lanak egin** edo denda batean lan egingo nuke. 77 07 58 Ana Isabel.
- **Magisteritza daukan neska** batek OHoko klaseak ematen ditu, euskaraz edo erdaraz. 77 10 21, Montse.
- **Neska prest umeak zaintzeko** edo dendan lan egiteko. Dei egin 13.00tik 16.00era edo 22.00tik aurrera. Tfnoa: 79 95 92. Rakfel.

Salerosketak

- **Opel Corsa salgai.** (SS-Z). Oso egoera onean eta kilometro gutxirekin. Prezioa: 350.000 pta. Tfnoa: 76 0 7 87.
- **Vespa Iris 200 salgai.** Tfnoa: 76 08 51.
- **Bibolin 1/2 salgai.** Soka markakoa eta egoera onean. Tfnoa: 79 25 85.
- **Gauerako bost akumuladore** elektriko salgai. Prezio eta egoera onean. Tfnoa: 79 87 90.
- **Rondaia talde baterako soinu-jolea behar da.** Tfnoa: 79 71 21.
- **Boxer arrazako txakurkumea salgai.** 77 00 17.

Denetarik

- **Kutxak duela urte batzuk perretxikoen lami-**nak atera zituen. Horiek erostea gustatuko litzaidake. Etxean baduzu eta saltzeko asmoaz bazaudede dei egin 79 80 31 tfnora. Ondo ordainduko dut. Tomas.
- **Gasteizera egunero** goizeko 8etarako joan behar baduzu eta tokia baduzu dei egin. Tfnoa: 79 61 19



WERU®
Ate + leihoak



Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95 ARRASATE



Ezagutu itzazu PVCren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik...

- Aldizkariak, egunkariak
- Zinta, magnetofoiak
- Ahozkatze liburuak
- Multimedia, CD ROM
- Ikusentzunezko metodoak
- Ordenagailu ariketak
- Gramatika liburuak
- Irakurtzeko liburuak
- Bideo pelikulak
- Nobelak, komikiak
- Hiztegiak
- Textu liburuak
- Dokumentalak...

ORDUTEGIA

Astelehena,
asteazkena,
osteguna:
16tik-20ra

Ostirala:
16tik-19.30etara

MEDIATEKA



**Denentzat
zabalik!**

**Zabaltzeko
eguna:
urriaren 16an
astelehena**

**Eta ikastaroa
bakarrik
2.500ptagatik!**

Mediateka



CITROËN XANTIA ACTIVA BERRIA

KURBAK OKERTU BARIK EMATEN DITUEN LEHEN AUTOA



* Kurba ematerakoan!

SC.CAR sistemak erakarleen informazioa koordinatzen du eta ardatz finkatzailearen gogortasuna aldatzen du segunduko 4 ehunekotan zeharkako anguloa ia 0-raino zuzenduz.

"Autoa errailen gainean doa"

Top Auto.

"Egunen batean auto guztiak horrela egingo dira"

Autopista.

"Xantia Activa berria errepidean ondo baino hobeto dabil... Eta a ze nolako segurtasuna, Activa berriak maisutasun ikaragarri gaitzen ditu kurba... larritasunean lasaitasun handia eskaintzen dio gidariari...!".

Auto Plus, irailak 20.

"Zolura heltzeko orduan Activak jauzi handia egin du, kulunkatu barik eta ikaragarriko egonkortasunaz edozein egoeretan".

Auto Journal, 17. zenbakia.



PROBA EZAZU.

Segurtasun aktiboari dagokionez Citroën-ek erreferentzi berri bat asmatu du. Europako injinerutza onenarengandik zerbait berezia sortu da: Citroën Xantia Activa. Citroën kulunkatasunaren kontrol aktiboaren sistema daraman lehen autoa. Sistema honek, Citroën-en eskusiba munduan, elektronikaren abiada elkartzen du hidraulikaren potentzia, Citroën Xantia Activak kurba okertu barik eman dezan lortuz, lau gurpilak ondo itsatsiz, zolura gogor helduz, errailen gainean joango balitz bezala.

Kurbetan sartzerakoan frenatuta ere, autoak bere norabidea mantentzen du, gaurdaino ezagutzen ez zen zehaztasunez. S.C.CARarekin, Citroën berriz ere automobilaren teknologiaren munduan punta puntan jarri da.

Zatoz probatzera, inongo konpromezu barik, kurba okertu barik ematen dituen lehen autoa. Citroën edozein kontzezionariotatik zuretzat dago Xantia Activaren bat.

Ezin duzu imagina ere egin, Citroën-ek zuegatik egin dezakeena.

CITROËN XANTIA ACTIVA

Chapime Tailerrak

Araba Etorbidea, z/g. Tfnoak: 79 06 57 eta 79 45 22. Arrasate